

## **JARDUERAK, INSTALAZIOAK ETA SALTOKIAK ABIARAZTEAN ZEIN ALDATZEAN ADMINISTRAZIOAREN KONTROL ZERBITZUAK EMATEAGATIKO TASA ARAUPETZEKO ORDENANTZA.**

### **I. Arrazoiak eta izaera**

Toki Ogasunen 9/2005 Foru Arauak eman dizkion ahalmenak erabiliz, Udalak jarduerak, instalazioak eta saltokiak abiaraztean zein aldatzean administrazio jarduketak eta/edo ikustatze, egiaztapen eta kontrol jarduketa teknikoak egiteagatiko tasa ezarri du. Tasa horretan zerga ordenantza hau izango da aginduzko, eta horren arauak Foru Arauaren 21.etik 28.era bitarteko artikuluek ezarri dutenaren arabera izango dira.

### **II. Zerga egitatea**

#### **2. artikulua**

##### **2.1 artikulua.- Tasa honen zergapeko egitatea da:**

Administrazio jarduketa garatzea eta/edo ikustatze, egiaztapen eta kontrol jarduketa teknikoa egitea xede honekin: zerbitzu-jarduerarako establezimenduak, hirigintza araudian eta udal ordenantza aplikagarrian eskatzen diren betekizunak betetzen dituen ala ez.

Halaber, Tasa honen zergapeko egitatea da: aldaketak establezimenduan edo hasierako jardueran.

2.- Ordenantza honen ondorioz, establezimendutzat hartuko da edozein azpiegitura, eraikuntza, instalazio edo toki estalia edo kaleko tokia (aire libre) publikoari zabalik egotea ala ez egotea, edo beste establezimenduaren osagarria edo horri erantsia edo jarduera nagusia, industria, profesional, zerbitzu, ikuskizuni publiko edo atsedean jarduerak betetzen badituzte beti edo aldi batean bere kabuz.

3.- Tasa hori ezarriko zaio frogatze-jarduketei, artikulua honen 1. idatz-zatian aipatuta, esku-hartze administratibo erregimenetan, erantzukizuneko adierazpenetan eta aurretiko jakinarazpenetan.

4. Edozein kasutan, udal jarduera sortuko da, subjektu pasiboak baimena eskatzen duenean edo erantzukizuneko adierazpena aurkezten duenean edo aurretiko jakinarazpena egiten duenean, edo ikuskaritza jarduketaren ondorioz, jakinarazi gabeko jarduerak daudela egiaztatzen denean edo egindako jakinarazpenak ez dutenean guztiz babesten.

5. Halaber, hauxe da tasaren zergagaita: partikularren kexek edo salaketek sorrarazten duten udal ikuskaritza, pertsonal teknikoaren edo hirugarren bitartez egina. Udal ikuskaritzak egiaztatuko ditu, higiezinak, establezimenduek eta/edo jarduerak segurtasuna, osasun eta higiene publiko baldintzak betetzen dituzten ala ez.

## **2.2 artikulua-. Administrazio jarduketak eta/edo egiaztatze- frogatze- eta kontrol-jarduketa teknikoak egiteagatiko Tasari lotutakoak.-**

Tasa honen menpean dago: jarduera, instalazio eta establezimenduak funtzionamenduan jartzea eta horien aldaketak, derrigorrez eskabidea eskatu behar denean eta lizentzia lortu behar denean edo, kasuan kasuko, erantzukizuneko adierazpena edo aurretiko jakinarazpena behar denean legegintza sektorialak jarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko edo kontrolatzeko, eta, besteak beste honakoak:

- a) Establezimendua lehenengo aldiz jartzea bere jarduerari hasiera emateko.
- b) Establezimenduen eskualdatzeak aldaketarik ez dagoenean eta ez denean establezimendua handitzen ezta jarduera ere.
- c) Establezimendua edo lokala berrirekitzen denean, dagokion lizentzia lortu zuen titular berak berrirekitzen duelako, baldin eta azken egiaztapenetik 12 hilabete igaro badira eta hori aldeko ondorioa izan bada.
- d) Establezimenduan jarduera-aldaketa denean edo jarduera handitzen denean, nahiz eta titular berak jarraitu, eta, betiere jarduera berria ez badago Jarduera Ekonomikoen Nazio sailkapenean sartuta eta jardueraren kalifikazioa aldatzen ez bada.
- e) Establezimendua handitzen denean eta horretan egiten den edozein aldaketa dagoenean, eta aldaketak artikulua honen 2.1 idatz-zatian baldintzei ukitzen dienean, aldaketen egiaztapen berria eskatuz.
- f) Kokapen berria establezimenduaren lekualdatzearengatik, hobarien gaietan araututa dagoenaren kalterik gabe.

### **III. Subjektu pasiboak**

#### **3. artikulua**

Honako hauek dira, zergapeko kontzeptuan, zerga honen subjektu pasiboak: pertsona fisikoak eta juridikoak eta Zergen Foru Arau Orokorraren 34.3 artikuluan aipatutako entitateak, garatu nahi den edo garatzen den jardueraren titularrak, baldin eta Udal Administrazioak beteko duen frogatze- egiaztatze- eta kontrol-jarduera oinarritzen bada lizentzia emateagatiko ondorioz, erantzukizuneko adierazpena aurkezteagatiko ondorioz edo aurretiko jakinerazpena aurkezteagatiko ondorioz.

Halaber, partikularren kexagatik edo salaketagatik udal ikuskaritza jarduera sortu denean, tasaren subjektu pasiboa da salatzailea, hura guztiz frogatu gabekotzat edo fundamentu gabekotzat jotzen bada, udal zerbitzu teknikoaren arabera. Alderantziz bada, salatua subjektu pasiboa izango da.

Industria jarduera, merkataritza jarduera edo oro har zerbitzua egiten edo egingo den higiezin jabeak ordezkotzat hartuko dira. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jakinarazi ahal izango dizkiete kuotak.

#### **IV. Erantzuleak**

##### **4. artikulua**

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 41. artikuluan aipatutako pertsona fisikoek zein juridikoek solidarioki ordainduko dituzte zordun nagusiaren zerga betebeharrak.

2. Erantzule subsidiarioak izango dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 42. Artikuluak aipatzen dituen pertsonak edo entitateak, artikulua horrek adierazten dituen kasuetan gorabeheretan.

#### **V. Oinarri zergagarria**

##### **5. artikulua**

1. Oinarri zergagarria hauxe da: lokalaren azalera edo jarduerarako lokala.

2. Horretarako, lokalaren azaleratzat edo lurzorutzat ulertuko da: aurkeztutako proiektuan adierazita dagoen krokisaren azalera grafikoa, edo osagarri moduan, katastro azalera edo udal teknikariek egindako neurketen emaitza.

#### **VI. Zerga kuota**

##### **6. artikulua**

1. Zerga kuota zehazteko bereiztuko da: aurretiko jakinarazpena edo lizentzia dena, eta establezimenduaren azalaren arabera honako eskala jarriko da:

<u>AZALERA</u> .....	<u>AURRETIKO JAKINARAZPENA</u> .....	<u>LIZENTZIA</u>
50 m2 arte .....	389,17€ .....	779,50€
50etik gora 100 m2 arte .....	545,74€ .....	1.091,48€
100etik gora 250 m2 arte .....	934,90€ .....	1.870,97€
250etik gora 500 m2 arte .....	1.558,99€ .....	3.117,87€
m2 bakoitzeko soberan 500 m2tik gora .....	2,18€/m2 .....	3,27€/m2

Lizentzia behar duen jarduera nekazaritza-abeltzaintzakoa bada, azaleko 500m<sup>2</sup>tik gora, metro karratuko zenbatekoa 1,60€ izango da.

2. Jarduera handitze-espeditentari dagokion tasaren likidazioa denean, zenbatekoa zehaztuko da, aurreko idatz-zatietan kontenplatuta dauden eskalak aplikatuz handitzeak ukitzen duen azalaren gainean bakarrik, jadanik likidatuta dauden azalera edo azalera kontuan hartu gabe.

3. Jarduera handitzeko espedienteari dagokion tasaren likidazioa denean, baldin eta azala handitzen ez bada, baina bai fabrikazioa aldatzea edo handitzea produktu berriak egiteagatik edo biltegiatzeagatik edo jardueran zein instalazioan bestelako aldaketak egiteagatik eta horiek dagokien espedientearen tramitazioa behar dutenean azalera handitu gabe: 389,17€

4. Jarduera antenak jartzeko denean kasu hauetan: irratia zabaldu, telebista, lortura zerbitzuak, telebistako seinaleak transmititu, enpresei eta partikularrei zerbitzua emateko instalazioak, Telefonía Mugikorren antenak, Internet Zerbitzua eta antzekoak. Horietan kuota finkoa ordainduko da: 3.267,63€, eta emisio plater bakoitzeko eta/edo lehengo lizentzia jartzeagatik osagarritz jarritako errezeptzioagatik 653,53€ko zerga kuota ordainduko da.

5. Soinu neurketak egiteagatik tasa kalkulatu da honako ordutegia kontuan hartuta:

5.1 Neurketa egiten bada astelehenetik larunbatera bitartean,

- goizeko seietatik gaueko hamarretara: 82,99€/ordua.

- gaueko hamarretarik goizeko seietara: 145,23€/ordua

5.2 Neurketa egiten bada igandetan edo jai egunetan,

- goizeko seietatik gaueko hamarretara: 165,97€/ordua

- gaueko hamarretatik goizeko seietara: - 207,47€/ordua

6. Lotutako azalerarik gabeko jardueren lizentziak: 372,58€

## **VII. Salbuespenak eta hobariak**

### **7. artikulua**

7.1 Tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

A) Establezimenduen lekualdatzen direnean, derrigorrezko errauspenaren, sutearen, aurri-adierazpenaren edo ezinbesteko beste kasu batengatik; edo Administrazioak ezarritako baten zehapenaren edo haren agindu edo lege-xedapenak ez betetzearen zioz.

Salbuespena konpondu edo ordezkatzeko duen lokal berriarentzako dela ulertuko da, betiere jarduera bera egiteko erabiliz gero eta berau handitu ezean.

B) Bakoitza bere establezimenduarekin barnealdetik lotuta dauden jeneroen edo artikuluen biltegiak, betiere, aipatutako establezimenduek irekiera lizentzia edo baimena izanez gero.

7.2. Hobariak

7.2.1. Zerga kuotan %75eko hobaria izango dute:

A) Lekualdatzeak bigarren gradura arteko aurreko edo ondorengo ahaideen arteko eta ezkontideen arteko lagapena edo ondorengotzatik eratorriko direnean, betiere:

- Ondorengotza arrazoa edo heriotza urtearen barruan eskatuz gero.
- Lizentzia Fiskalaren aldibereko alta eta baja onartuz gero.

7.2.2. Honako hauek zerga kuotaren %50eko hobaria izango dute:

A) Familia ugariaren titularra, lehenengo jarduera bat hasten duten 30 urteko gutxiagoko gazteak, langabezian dauden emakumeak eta denbora luzean langabezian dauden pertsonak.

7.2.3. Zerga kuotan %25eko hobaria izango dute:

A) Jatorrizko lokaletan lanak egiteagatik establezimenduak lekualdatzea, betiere, dagozkien Obra eta Irekiera Lizentziak izanez gero.

B) Establezimenduak lekualdatzea, lokalean aldaketarik eragin ezean, ezta jardueran ere.

C) Lokalak handitzea, handitutako atala jatorrizko lokalarekin lotuta egonez gero. Baita ere jarduera handitzea.

D) Hirigintza araudiari jarraituz instalatu ezin diren gunetatik gunegokietara establezimenduak edo lokalak lekualdatzea, betiere, egingo den jarduera berdina eta azalera baliokidea izatekotan.

E) Establezimendua edo lokala berrirekitzen denean, dagokion lizentzia lortu zuen titular berak berrirekitzen duelako, baldin eta azken egiaztapenetik 12 hilabete igaro badira eta hori aldeko ondorioa izan badu.

7.2.4. Kasuan kasuko zerga kuota ezin da 50 € baino gutxiago.

## **VIII. Sortzapena**

### **8. artikulua**

1. Jarduerak lizentzia edo aurretiko baimena behar dutenean: Zerga egitatea den udal jarduera hasten denean sortarazi zion tasa eta sortzen da zergak ordaindu beharra. Horretarako, jarduera irekiera-lizentziarako eskabidea edo baimena aurkezten denean hasten dela ulertuko da, interesatuak halakorik formulatzen badu beren beregi. Jarduera lizentzia egokia edo aurretiko baimena lortu gabe egiten bada, eskatu daitezkeen baldintzak establezimenduak betetzen dituen ala ez zehazteko jarduera udalak hasten duenean sortaraziko da tasa. Bere baimena edo itxidura ebatziko duen administrazio-espeditentari hasiera ematen bazaio ere

2. Aldez aurretiko adierazpenean edota erantzukizunezko aitorpenean diren jarduerak: jarduera aldez aurretiko adierazpenaren edota erantzukizunezko aitorpenearen administrazio-esku hartze araubidearen mendean denean, udal zerbitzuek egiaztatze edo ondorengo ikuskapena egiten dutenean sortzen da tasa eta zerga ordaindu beharra. Ondorio horietarako, jardueraren abiarazte eguna aldez aurretiko

adierazpenaren edota erantzukizuneko aitorenaren idazkia aurkeztu denekoa izango da. Tasa era berean sortuko da aldez aurretiko adierazpena edota erantzukizuneko aitoren aurkeztu gabe garatu denean jarduera, nahiz garatutako jarduera eta adierazitakoa bat ez etorri ez eta udalak jarduera zertan den egiaztatzeko ikuskatze zein ingurumen diziplina jarduketak burutzean.

3. Behin zergak ordaindu beharra sortuz gero, hori ez du ukituko inoiz ere jardueraren aldaketak, prozeduraren iraungitze adierazpenak edo funtzionamendurako tituluak, eskatutako lizentzia ukatzeak edo establezimendua aldaraztea baldintza duen lizentzia emateak, ezta eskatzaileak lizentziari, eman ondoren, uko edo atzera egiteak, aurretiko kontrolaren erregimenean, edo frogatze jarduketak egiteak, baldin eta jarduerak aurretiko jakinarazpenaren menpean eta/edo erantzukizuneko adierazpenaren menpean badaude.

Jarduera sailkatuaren lizentzia daukaten jarduerak edo kokapen lizentzia daukaten jarduerak direnean, eskatzaile berak uko edo atzera egitea formulatzen duenean dagokion lizentzia eman aurretik, ordaindu behar zuenaren zenbatekoaren %50eko kuota likidatuko da ordenantza honen arabera, betiere udal jarduera hasita badago. Jakinarazitako jarduerak edo erantzukizuneko adierazpenaren jarduerak diren kasuetan, eskatzaileak lizentziari atzera egiten badiu Udalak egiaztatze jarduketak hasi aurretik, tasaren zenbateko osoa itzuliko zaio zergadunari.

## **IX. Izapideak eta iraungipena**

### **9.1 artikulua.- Izapideak**

1. Jarduera jarri, edo berritu, aldatu edo funtzionamenduan dagoen jardueraren titularitatea aldatu nahi duten pertsonak, jakinarazpena egin edo baimena eskatu beharko dute, dagokion esku-hartze administratiboari buruzko erregimenari jarraiki.

Irekitzeko lizentzien eskabideak, edo, kasua denean, erantzukizuneko adierazpena edo aurretiko jakinarazpena aurkeztuko dira Erregistro Orokorrean, Korporazioak erraztuko duen inprimakiaren ereduaren arabera.

Edozelan ere, tasaren likidazioaren oinarri izan daitezkeen inguruabarren frogagiriak eta eskabide tramitatze behar den beste edozein agiri batu beharko dizkiote, indarreko arau-xedapenen eredura.

Beharrezkoa denean, eskabidearekin batera proiektu teknikoa eta azalpen txostena aurkeztuko dira, horiek eskumena duen teknikariak izenpetuko ditu, non zehaztuko diran: jardueraren ezaugarriak, kokalekuaren xehetasunak, eragina ingurumenean eta erabiliko diren neurri zuzentzaileak, eraginkortasun gradua eta segurtasuna bermea.

Proiektuak ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar badu, aurreko atalean aipatutako dokumentazioak ingurumen-inpaktuaren azterlana erantsiko du.

Lizentzia lortzeko eskabide-orriek ez daukate beharreko dokumentazioa (adierazi dena) etenda geratuko dira hura zehaztu arte, horretarako, Administrazioak 15

eguneko epea emango du; dena den, izapideak artxibatu egingo dira baldin eta jarduera ez badago funtzionamenduak, eta funtzionamenduan badago ukatuko da.

2. Baldin eta, eskabide formulatu ondoren edo funtzionamenduan jarri dela jakinarazi eta gero, edo jarduera aldatu edo handitzen bada, edo baldintzak aldatzen badira, edo jardueraren titularitatea aldatzen bada, aldarazpen horien berri eman beharko zaio Udal Administrazioari, aurreko zenbakian adierazita dauden xehetasunekin eta eskatutako ondorioekin.

## **9.2 artikulua. Iraungipena**

Lizentzien iraugipen data:

A) Lizentzia eman eta ondorengo hiru hilabete barruan establezimendua ez bazaio publikoari ireki.

B) Establezimenduak bere jarduerak betetzen hasi ondoren, sei hilabete baino gehiago itxita balego.

Aldi baterako ixten bada, industria edo merkataritza jarduerak eteteko arrazoi arruntak direnean, eta hasierako likidazioaren oinarriak izan zirenek aldaketarik gabe jarraitzen badute berrirekitzean, eta baita industria- edo merkataritza-jardueraren titularitatea ere, urte bateko epea izango da indarrean.

## **X. Likidazioa eta diru-sarrera**

### **10. artikulua**

Tasa sortu ondoren, Udalak zerga-likidazioa egin dezake, dena den, udal jarduera amaitu ondoren eta beharreko udal ebazpena diktatu ondoren, Tasaren behin betiko likidazioa egingo du, hau subjektu pasiboari jakinaraziko dio udal kutxetan ordaindu dezaten zuzen, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketaren Foru Arau Orokorrak aipatzen dituen baliabideetan eta epeetan.

Udalak zerga hau eskatu dezake auto-likidazio erregimenean.

## **XI. Arau-haustek eta zigorrak**

### **11. artikulua**

Zerga urrapenak kalifikatzeari dagokion guztian, eta, halaber, kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Zergen Foru Arau Orokorraren 196. Eta hurrengo artikuluetan jasotakoa aplikatuko da.

## **XII. AZKEN XEDAPENA.**

Honako Ordenantza hau 2018ko urriaren 23an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2019ko urtarrilaren 1etik sortuko ditu ondorioak, harik eta

aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

Aurrekontuen gaineko Foru Arauek edo zuzenean aplikatu beharreko bestelako arau edo xedapenen batek aldaketaren bat eragiten badu tasa honen araubidean, ezer adierazi barik aldatuko da Zerga Ordenantza hau.